

ZM

ZORROTZ MORROTZ

32. ZEHUKA 2015eko MARTXOA

GERMÁN ALCARAZU

“A ESCONDIDAS” FILMEKO PROTAGONISTA

TXINBATUKADA TALDEA · ALBISTEAK...

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es



...Imajinatzen duzu auzoa
merkataritarik gabe?

**ESKAINTZARik ONENA
ZORROTZATik
IRTEN BARIK**

**Berton
kontsumitu**



kafetegia
aLBOKA

Cordelería, 5
Zorrotza - 48013 BILBAO
Tfno. 94 499 29 43



**MESON
OKONDO**

Pintxo askotarikoak
7etatik, 23etara, zabalik

Zorrotza Kastrexana errep. 8 • Tel: 944 393 766

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak, hanburgesak, oilasko erreak... FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Frontoia estalita: baietz oraingo honetan!!

Lehenik eta behin, zenbaki honekin Zorrotz Morrotz-ek hasten duen garai berria agurtu nahi dugu eta zorte oneko eta iraupen handiko proiektua izatea opa nahi diogu aldizkariari. Espero dugu halaber, auzoaren partez proiektuak merezi duen harrera ona izatea. Ahalegin hutsak, hala merezi du.

Bestalde, artikulu hau idaztean, frontoiaren estaltzea errealitate bihurtzeko kanpainan murgilduta gaude erabat. Triunfalismo faltsuetan erori gabe eta asko borrokatu ondoren, oraingo honetan Zorrotza auzoko aldarrikapen historiko hau lortzea posible izango dela uste dugu.

Bukatzeko, gogoratu nahi dugu auzoko ekintzetan eta herri mugimenduan dagoen partehartzea hobetzea guztion ardura dela.

Agur bero eta solidario bat auzokide guztientzat.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!



Zorrotz Morrotz zure e-postan jaso nahi?

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com**

helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarri

Zorrotzako kultur aldizkaria
31. zenbakia. 2013ko martxoa

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia
Zalbidea, 7 behe
48013. Zorrotza. Bilbo
Tfnoa: **94 441 49 20**
622 61 90 20

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

 **facebook.com/ZorrotzMorrotz**

Koordinazioa:
Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:
Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Haizea Olleta
Aitor Marín
Iratze Pérez
Lorna Yáñez

Zuzenketak:
Iñigo

Laguntzaileak:
Karlos Rodríguez

Inprimaketa:
Arin Graf



zeurea da fitza
euskara
no te lo pierdas.

Jai-Alai kafetegia



Abaro estarta. 12
94 490 12 59

cafe**txinbo**

Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estarta. 10
Tel. 94 608 85 74

AUTO ESKOLA **KAIKU**



Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

Regalos **Omega**

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66


Inauteri arrakastatsua beste behin ere

Zorrotz Morrotz

Nahiz eta eguraldia lagun ez izan, jende asko animatu zen inauteriko jaitsieran parte hartzera larunbat horretan egin zuen hotzari aurre eginda. Euria zela kausa, Azoka parkean bukatu beharrean, gaztetxe aurreko plazatxoan izan ziren bukaerako ekitaldia eta sari banaketa. Parte-hartzaile kopurua ikusita, guztiz sendo dabil Zorrotzako inauteria. Zorionak!

Esku-hartzearena saririk handiena izan bazen ere, antolatzaileek sari ugari banatu zituzten parte hartzaileen artean. Aipatzekoak Denda eta Tabernen Mozorro Lehia-
ketako sariak jaso zituzten Madness eta Castilla taberna-
ketako eta Rasan Plus denda.



Inauterietako argazki gehiago:
 [facebook.com/ZorrotzMorrotz](https://www.facebook.com/ZorrotzMorrotz)





Frontoia estaltzearen aldeko borrokan, helburutik hurbilago

Igor Gutiérrez

Taldeen Koordinakundeak abenduan abiatutako borrokaren ondorioz aurrerapausuak eman dira frontoia estaltzearen auzian, otsailaren 26ko manifestazioaren ondoren irakurritako komunikatuaren arabera. Bi hilabetetan bi mila sinaduratik gora bildu direla ere jakinarazi zuen Koordinakundeak. Azken asteotan hainbat hedabidek borroka horren berri eman dute eta badirudi bere oihartzuna izan duela. Izan ere, otsailaren 24an, 8. Barrutiko Batzorde Teknikoan, Obra eta Zerbitzuko sailako zuzendari Fran Viñezek pilotalekuan estalkia kokatzeko konpromisoa adierazi zuen Koordinakundeko ordezkarien aurrean.

Halaber, maiatzeko hauteskundeak baino lehen proiektua aukeratua izango zela agindu zien. Horretarako, mahai tekniko bat osatuko

da eta horrek hiru fasetan burutuko du bere lana: lehendabizi, auzokideen beharrianak identifikatuko dira, balizko proiektuak ase-bete ditzan; segidan, estalkia nolakoa izan behar duen aztertuko da; eta bukatzeko, hiru proiektu posible diseinatuko dira, horietako bat aukeratua izan dadin. Delako mahai tekniko hori auzoko elkarte eta auzokideez osatuta egongo da, Fran Viñezen zuzendaritzapean.

Alabaina, finantziazioa ez da oraindik zehaztu, nahiz eta zuzendariak berretsi dirua egon badagoela. Hauteskundeen ondoren sortutako udalak proiektua bertan behera utziko duen beldur dira Koordinakundeko taldeak, alderdi politikoen artean desadostasuna sumatzen dutelako. Horregatik, gai hori lehen baino lehen argitzea eskatzen dute.

Zorrotzako puntan 2100 etxebizitza eraikitzeko proiektua aurkeztu dute

Zorrotzan geratzen den industria desagertzeaz dago. Hala jakinarazi du Bilboko Udalak Punta Zorrotza berrezkuratzeko proiektuarekin. 2010 urtean hasi zen Zorrotzaurre eta Punta Zorrotzako, baina pasa den otsailan aurkeztu dute behin betikoa: %35 etxebizitzak izango dira eta %65 ekonomi jardueretarakoak.



Ekonomia jardueraren gunea



Bizitegi-gunea

Lorna Yáñez

Renfe trenbideak, Zorrotzako mugak argi markatzen ditu. Antzina, fluxu handiko auzoa genuen La Base eremuan. Zeharbidea zen botea hartzeko, lantegietara joateko... Gaur, tunela zeharkatu eta auzo berri batera sartzea modukoa da. Ez dago zalantzarik auzoko lekurik degradatuena dela, baina baita gurean dugun espazio berde eta asialdirako gelditzen den eremu natural bakarra ere.

2010. urtean, Punta Zorrotzako birsorkuntza dela eta, hiru proiektu aurkeztu ziren Herri Partaidetzari esker. Hasierako proiektuan %100 ekonomi jardueretarako aurkeztu zen: Ibon Aresoren taldea, hirian lurralde industrialia ipintzearen aldekoa zen enplegua sortzeko beharrik eta Bilbok enpresak erakarri behar dituelako. Auzo Elkartek, enplegua sortzearen aldekoa izanda, ez zerrituz ondo planteamendua auzoarekin integratuta ez egoteari.

Otsailan aurkeztu da behin betiko posiblea den proiektua. Eremu berri hau, Euskal Kulturaren ondarearekin bat etorriko da Molinos de Bizkaia, Pablo Alzola jaunaren burdinazko zubia eta estiba garabiarekin.

Punta Zorrotzan, 300 mila metro koadroko zabaleroko puntan, 2100 etxebizitza altxatuko dira: araubide tasatuko babes publikoko etxebizitzak eta araubide orokorreko eta bereziko babes ofizialeko etxebizitzak egongo dira bertan. Proiektu osoaren aurrekontua 137573917 €an dago estimatuta. Renfe trenbidea lurperatzea ere aurreikusten du aurreproiektuak, baita bi ibairen arteko penintsula bi zubiz Barakaldora konektatzea ere.

Egun geratzen den industria enpresa arriskutsuena, Sader, trasladatzeko eskaera askotan egin da Zorrotzako Auzo Elkartetik eta azkenean, 2016an, Zierbenako portura mugituko dute.

Soka kalea



Renfe trenbideak eta Frai Juan kalearen artean aurki dezakegun kalea da.

Izen hau 1969. urtean ezarri zioten. Zer dela eta? Zorrotzan itsasontzietarako ekipamenduak egiten zituen untxiola bat zegoen, eta untxiola baten ondoan sokateria lantegi bat beharrezkoa denez, badirudi kale honetan kokatuta zegoela. Horregatik ezarri zioten "Corderlería" izena.

Zorrotzako argazki zaharrak dituzu? Zure argazkia Zorrotz Morrotzen agertzea nahi duzu??

Bidaliguzu e-mail bat **zmorrotz@gmail.com**

helbide elektronikora gaiaren laukian "behin batean" jarritz.

Eskerrik asko!



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46



BAR BASARRI

Errazioak, konbinatuak,
pintxo askotarikoak,
eta pintxopote ostegunero
ZORROTZA KASTREXANA, 10



BAR VENECIA

Especialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta beste pintxo

Abaro estarta 10

AUPA ATHLETIC

“Oso ondo moldatu naiz Txinako kultura zein tradizioetara”



KOLDO PERAL

Bizitokia: Zhuzai (Txina)

Noiztik: 2008ko urtariletik

Adina: 33 urte

Lanbidea: Salmenta eta proiektu arduraduna

bestera desberdintasun itzelak sumatu daitezke bizi kalitatean zein bizimoduan. Gainera, aniztasun etniko, kultural eta lingüistiko handia dago, beraz, guztia ezagutzea guztiz ezinezkoa da eta ez dago aspertzeko astirik...

Eta gehien harritu zaituena?

Heltzean, Txina bera zein bere hiriak zein haundi izan daitezkeen ohartu nintzen. Hiri medio baten 10 milioi pertsona bizi dira. Hori inoiz ez nuen beste inon ikusi.

Zorrotzarekin alderatuta...

Zorrotza orain oso txikia iruditzen zait! Hala ere, lehen esan bezala, alde handia dago probintzia batetik bestera edo herri txikiak hiri haundiekin konparatuz. Gainera, kalean bizi-giroa badago eguneko 24 orduetan, as-telehenetik igandera. Lorik egiten ez duten hiriak dira.

Zer da gehien duzuna faltan?

Nahiz eta hemen lagun asko izan, betiko nire lagun eta familia ditut faltan. Baina horretaz aparte, egia esanda, ez dut gauza askorik faltan, mendebaldeko kultura, produktuak eta jendea hemen ere gero eta ohikoagoak direlako. Gainera, ondo moldatu naiz Txinako kultura zein tradizioetara.

Bidaiatzeko aukerarik eduki duzu?

Bai, lanarekin zein aisialdian, hemendik “ger-tu” dauden hainbat lekutan ibili naiz: Korea, Singapur, Tailandia, Vietnam, Camboya, Birmanian... Hego Ameriketara eta Dubain ere ibili nintzen lanean.

Noiztik bizi zara Txinan eta zertan zabiltzan?

Beijinera 2008. urteko urtarilean heldu nintzen Eusko Jaurlaritzako Nazioarteko Merkataritza alorreko bekadun. Beka bukatu ondoren, Shangain txinatarrera ikasten aritu nintzen sei hilabetez eta duela bost urte, Singapurreko enpresa batentzat nabil lanean. Zhuzai izeneko hirian bizi naiz, Txinako hegoaldean, Macao hiriaren ondoan. Gaur egun, enpresako nazioarteko salmenta eta proiektu arduraduna naiz: Merkatu eta bazkide berriak bilatzen ditut haien merkatuan gure enpresaren produktuak saltzeko.

Zer da Txinan gehien gustatzen zaizuna?

Txinan dena oso aldakorra eta azkarra da, lan egiteko eta jende berria ezagutzeko aukera apartak sortzen direlarik. Belaunaldi batetik



Oporretan zatozenez... gogor egiten zaizu Txinara bueltatzea?

Bizitza osoa hemen planteaturik daukadenez, berriro bueltatzeak ez dit pena handirik ematen. Gainera, 2 edo 3 aste hemen emanda, Txinara bueltatzeko irrikitan nago, nire eguneroko bizitzarekin aurrera jarraitzeko. Hala ere, pena ematen dit lagunei eta familiari adio esan beharrak... Baina bizitza horrelakoa da eta horrela jarraitu behar.

Zu oso futbolzalea zara... nola bizi duzu futbola bertan?

Bilborekiko 7 orduko diferentzia dagoenez, normalean ezin ditut partiduak ikusi, larunbat arratsaldeetan jokaten ez badute. Hala ere, internetez jarraitzen saiatzen naiz: egunkariak irakurritz, bideoak ikusiz..

Zelan moldatu zara janariarekin?

Zaila suertatu zitzaidan, batez ere hemen erabiltzen dituzten olio mota eta saltsa desberdinengatik. Honek zaila egiten du dieta osasuntsua eramatea, nahiz eta arroza eta fideo asko hartzen diren. Hala ere, janari eskaintza izugarrikoa da, Txinako sukaldaritza mota desberdinak zein mundu osoko janari eta jatetxeak aurki ditzakezu.

Bertan geratzeko erabakia erraza izan zen, edo denborarekin hartutakoa?

Nire lehenengo kontratua bukatu zitzaidanean, European krisiagatik lan gutxi eskaintzen zen eta Txinan lana sobera edukiko nuela jakinda, hemen geratzeko erabakia hartu nuen. Erabakiaz ez naiz damutu, Txinan oso gustura nago eta.

Vía gráfica
viagraficazorrotza@gmail.com
Disenya

ARMAZOIA + KRISTALAK
URRUNETIK EDO HURBILETIK

49€

ibaretaluxury
OPTICA

Blackguard



TXINBATUKADA TALDEA

Igo bolumena! Burrumba hastear da!

Txinbotarrak konpartsari esker sortu da batukada talde berria Zorrotzan. Nahiz eta taldekide askok formakuntza musikalik ez izan, erritmoa, eta ondo pasatzeko eta zarata ateratzeko gogoia ez zaizkie falta.

Testua: Zorrotz Morrotz
Argazkiak: Txinbatukada

Urte bat eman du Txinbatukada batukada taldeak Zorrotzan burrunbada sortzen. Urte bat non taldean giro aparta sortu duten eta esan ahal da “batukada” bat baino gehiago dela taldea.

Txinbatukada, Txinbotarrak konpartsaren batukada moduan jaio zen eta Txinbotarrak konpartsako kideei esker proiektua aurrera eramán dute. Taldekide askok, konpartsakideak izanda, asanblada batean azaldu zuten ideia eta konpartsak diruz lagundu zuen behar zen materiala erosteko; horrexegatik, eta beti haien ondoan egon direlako behar zutenean, eskerrak eman nahi dizkiote konpartsari batukadako taldekideek.

Ondo pasatzea

Haien helburuen artean jai herrikoiak bultzatzea eta auzoa alaitzea badaude ere, helburu nagusia “ondo pasatzea” dela diote. Astero bi entsegu egiten dituzte, bata asteartean eta bestea larunbatean, eta frontoi azpian egiten dira. Asteburuko entseguaren ondoren “poteoa egiten dugu auzoko tabernetatik; hortik, ideia gehienak ateratzen dira.” Baina nondik hasi zen proiektu hau aurrera eramateko erabakia? Bada, hobeto ezagutzeko, hasieratik azaldu beharra dago: orain dela 2 urte, Zorrotzako jaietako gau batean, udaltzaingoa etorri zen txosnagunea ixtera “musikaren bolumena altua zelako aitzakiarekin”. Txinbatukadaren



ustez “ez zen lehenengo aldia eta ez da azkena izango udalak udaltzaingoa bidaltzen duena jai herrikoien kontra joateko”. Horri aurre egiteko, auzoko gazte batzuek musika instrumentuak hartu eta udalaren debekuearen gainetik batukada bat inprobisatu zuten jaiarekin jarraitzeko. Bat-bateko saio horren arrakasta ikusita, gazte batzuen artean proiektua aurrera eramatea adostu zuten, eta hortik jaio zen Txinbatukada.

Hortik aurrera, ahoz aho aritu ziren hurbileko jendeari komentatzen, batez ere, auzoko musika taldeetan murgilduta zegoen orori. Hasiera batean, 30 pertsona inguru batu ziren, eta gaur egun adin desberdinetako 20 pertsonak osatzen dute taldea. Gehienek, taldean sartu baino lehen ez zuten prestakuntzarik musika arloan, eta horregatik, aipatzen dutenez, “musikaren bitartez ondo pasatu nahi duen orok beti izango du aukera Txinbatukadan aritzeko”. Taldeetik haiengana hurbiltzeko eta musikaz goatzeko gonbitea egiten diote ondo pasatu nahi duen orori.

Arruntak ez diren erritmoak

“Erabiltzen ditugun erritmoak ez dira ohikoak, rock musikatik aterata daude” azaltzen dute Txinbatukadako taldekideek. Adibide batzuk jartzearen, Etsaiak, Sepultura eta horrelako rock taldeetako erritmoak hartu ditugu gure kalejiretarako. “Oraindik asko ikasi behar dugu” aitortzen dute, baina txiri-txiri aurrera doaz. Momentuz, iazko Aste Nagusian egin zuten kalejira bat salbu, Zorrotza izan



da haien agertoki bakarra. Baina ez dira kexatzen, “gustura ibiltzen baikara auzoan”. Eta hala izan zen adibidez, inauterietako jaitsieran. Oraindik entzun ez badituzu, bere musikarekin goatzeko aukera izango dugu hilaren 27an, Korrika dela eta Euskal Txokoak antolatutako egitarauaren barruan kalejira bat prestatu baitute. Zabaldu belarriak, badator Txinbatukada!

**Pizzeria
Jatetxea**

La Viña de Oro
Zorrozgoiti 1 · 944 994 247

**BAR
MOY**

Berezitasunak: Txanpiak,
Hanburgesa eta sandwich
erraldoiak

ZORROTZA KASTREXANA, 21
© 944 360 702


**BAR
ANAIAK
ROCK**

ASTILLERO 12
TLFNO: 94 612 95 48

GERMÁN ALCARAZU

“A escondidas” filmaren protagonista

“Kamera baten aurrean jartzen nintzen lehenengo aldia izan da”



3500 gazte baino gehiago aurkeztu ziren Madril, Katalunia eta Euskal Herriko institutuetan Mikel Ruedaren lehenengo luzemetraian antzezteko egin ziren kastingetara. Protagonista baten papera lortu zuenak, Zorrotzakoa, auzoko institutuan ikasten zuen eta Germán du izena

Testua eta argazkiak:
Aitor Marín

Txikitan aktorea izan nahi zuela zioen, baina "A escondidas" pelikularen grabaketara heldu arte, ez zuen inoiz zinema kamerarik ikusi, ezta interpretazio klaserik jaso ere. 14 urte dituen Rafaren papera antzetzen du Germanek pelikula honetan. Rafak bere adina duen Ibra (Adil Koukouh) marokiar gaztea ezagutuko du diskoteka batean. Bion artean sortuko den adiskidetasunaren atzetik zerbait gehiago dagoela konturatuko dira. Etorrizun osoa aurretik duten bi gazteren amodio istorio bigun eta inozo baten bidez, gaztetasuna, homosexualitatea eta inmigrazioa jorratzen ditu "A escondidas" pelikulak. Mikel Rueda Bilboko zinemagilearen lehen luzemetraia da. Bi protagonistetako bat gure auzokide Germán Alcarazu gaztea da. Txikitako ametsa errealitate bihurtu du. Berarekin egon gara:

Nolakoa izan da esperientzia?

Oso ona. Askok ikasi dut. Pentsa, kamera baten aurrean jartzen nintzen lehen aldia izan da...

Kamera baten aurrean jartzea esaten duten bezain zaila da?

Hasieran oso zaila izan zen, baina egunak pasatzen ziren heinean, ohitzen hasi nintzen eta pixkanaka-pixkanaka kamera hor zegoe-la ahazten hasi nintzen.

Aktorea izan nahi zenuen?

Txikitan, zer izan nahi nuen galdetzen zidatenean, aktorearen lanbidea erantzunetako bat zen beti. Askok gustatzen zitzaizkidan filmak txikitan, eta askotan, ikusten nituen film haietako aktorea izango nintzela amesten nuen. Inoiz ez zela gertatuko uste nuenean, errealitate bihurtu da amets hura.

Arte dramatiko ikasketak egiteko asmoa zenuen pelikula egin baino lehen?

Filmerako papera eskuratu baino lehen ez nuen inolako klaserik hartu. Orain bai, Barakaldoko akademia batean hartzen ditut klaseak, eta ikastaro hau bukatzean, Madrilera joateko asmoa dut ikastaro intentsibo bat egitera.

Eta nola heldu zitzaizun filma egiteko aukera?

DBHko 4. mailan nengoen, Zorrotzako institutuan, eta irakasle bat etorri zitzaigun kla



“Hasieran ez nuen kastingera aurkeztu nahi. Jende mordoak egongo zela pentsatzen nuen, eta ez nuen neure burua papera lortzeko gai ikusten.”

“Azken kastingera arte ez zidaten filmaren gaia esan. Ez nuen inolako zalantza izpirik izan. Ezin nuen aukera hori deuseztu”



sera gure adineko mutilen bila zebiltzala esanez pelikula bat egiteko. Kastinga egitera animatu gintuzten. Nik hasieran ez nuen neure burua aurkeztu nahi. Jende pila bat egongo zela pentsatzen nuen, eta ez nuen neure burua papera lortzeko gai ikusten. Azkenean lagunek eta irakasleek animatu ninduten, eta aurkeztu eta papera lortu ere egin nuen.

Zenbat iraun zuen kastingak? Nola bizi zenuen?

Oso luzea egin zitzaidan. Hasieran oso urduri nengoen. Sei kasting pasa behar izan nituen, eta haiek pasatzen joan ahala, gero eta urduriago jartzen nintzen. Azkena Madrilen izan zen, pelikulan nire kidea izango zen aktorearekin, baina lehenengoa institutuan bertan. Lehenengo hau, institutuko gela batean egin nuen. Neure burua aurkeztu baino ez nuen egin behar, baina oso urduri nengoen. Boligrafoa birritan bota nuen lurrera nahi gabe, telefono zenbakia txarto apuntatu nuen... Desastre hutsa. Gogoan dut papera eskuratu nuela jakin nuen uea. Oso polita eta hunkigarria izan zen.

Eta filmatzea? Ikasketekin bateratzeko arazorik?

Gogorra. Hilabete eta erdi iraun zuen. Ordu asko dira. Filmeko eszena asko gau ez dira, beraz gau asko lanean, lo egin gabe... Udan izan zen filmatzea, beraz oportetan nengoenez, inolako arazorik ez. Bestalde, Bilbon grabatzeak erosoago egin dit prozesua, zailtzarik gabe, nahiz eta batzuetan ezagutzen ez nituen auzoetan grabatu. Gogoratzen dut lehenengo egunean kamera niregana hurbildu zenean lehendabizikoz oso urduri jarri nintzela eta eszena hori erreplikatu behar izan genuela birritan edo hirutan. Hasieran, ikara. Baina gero ohitzen hasi nintzen eta gero eta erosoago sentitzen nintzen.

Gidoia irakurrita, zelan hartu zenuen filmaren gaia?

Azken kastingera arte ez zidaten esan zeri buruzkoa zen filma. Agian, hasieratik esanda, aurkeztu ginen pertsona kopurua txikiagoa izango zen... Ondo hartu nuen, eta ez nuen birritan pentsatu. Ezin nuen aukera hori alferrik galdu.

Zure egunerokotasunean “A escondidas” pelikulan agertzen diren bezalako jokabiderik ezagutu duzu?

Edozein tokitan gerta daiteke holakorik, eta nire ustez gazte asko indentifikaturik senti daitezke filman agertzen diren pertsonaiekin. Oso gai arruntak jorratzen ditu.

Film hau gazteen artean egon daitezkeen jarrera homofoboak eta arrazistak aldatzeko baliagarria izan daitekeela uste duzu?

Baietz esango nuke. Arrazismoaren kontrako jarrera eta homosexualitatea, oso gai naturalak dira eta era naturalean jorratzen ditu pelikulak. Koadrilletako talde-presioa ere nabaria da gaurko gizartean adin honetan... Oso pelikula errealista dela uste dut. Mikel Rueda zuzendariak, pertsonaiak sinesgarriak izatea lortu nahi zuen. Horregatik, gidoian guk normalean erabiltzen ez ditugun hitzak baldin bazeuden, aldatzeko eta gure erara moldatzeko eskatu zigun. Gidoiari jarraitzea gustatzen zait, baina batzuetan konturatu gabe, hitz batzuk aldatzen nituen... Mikelek nahi zuen errealismo hura lortu duela uste dut.

Etorkizuneko proiekturik ba al dago?

“A escondidas” bukatu ondoren, Telecinco katearen “El Príncipe” telefilmerrako kasting bat egin nuen. Ez nuen paperik lortu, baina itxuragatik izan zen, beste profil baten bila ari baitziren. Hala ere, oso ondo egin nuela eta “El Príncipe” telefilman edo beste batean pertsonaiaren bat antzetzeko deituko nindutela esan zidaten. Baina batek daki! Itxaron behar da, ea zorterik dagoen. Ni errepikatze-ko irrikitan nago.

LABURREAN

“Oso gustura errepikatuko nuke Mikel Ruedarekin”

Palomitak eta jesarleku erosoak edo lagunarte atsegina?

Film bat ikusteko bada, palomitak eta jesarleku ona nahiago dut.

Drama ala komedia?

Drama.

Aktore bat berarengandik ikasteko?

Mario Casas. Oso aktore ona da eta primeran daki errealitatea islatzen.

Zein zuzendarirekin gustatuko litzazuke lan egitea?

Oso eroso sentitu naiz Mikel Ruedarekin eta oso pozik errepikatuko nuke berarekin.

Jarraitzen dituzun telefilma eta teleaioa?

El Príncipe eta Zapeando.

Behin eta berriro ikusteko film bat?

Txikitari Harry Potterrenak nituen gustukoak. Bakarra hautatu behar bada “Bajo la misma estrella” aipatuko nuke.

Eta kanta edo musika talderen bat?

Rap eta hip-hopak oso gustuko dut.



MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbitza estatu, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75



Taberna
AITOR

José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96



MESÓN LUNA

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Hermógenes Rojo, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



Patata brabak

Osagaiak :

- Patatak (takotan moztuak)
- Ali oila (bi koilarakada)
- Mostaza (koilarakada bat)
- Oilasko eta haragi salda
- Tomate frijitua (gustuaren arabera)
- Esne pixka bat
- Pikantea

Kazoltxo batean, ali oila, mostaza, eta oilasko eta haragi salda koilara baten laguntzaz nahastu eta sutan jarri. Berotzen hasten denean esne pixka bat, tomate frijitua eta pikantea botatzen dira. Osagai bakoitzaren proportzioa gustuaren baitan dago. Tomate gehiago botaz gero, kolore gorriagoa izango du saltsak. Bukatzean patata frijituen gainean bota eta jateko prest. On egin!

DANTZARI TABERNA

Aspaldiko taberna auzoan, 3 urte eman du Marak arduradun. Goizeko 10etatik zabalik astelehenetik ostegunera eta 11etatik asteburu eta jaiegunetan. Tabernak txoko bat dauka eskuragarri bezeroen ospakizun edo bazkarietarako, edota futbol partidak pantaila handian ikusteko.

Larunbat, igande eta jaiegunero, poteo orduan tapa dohainik edariarekin.

Zorrozgoti bidea, 1 • Tel. 94 612 93 85

Zailtasun maila	Ertaina
Prezioa	Dohainik edariarekin



Dantzari

Camino Zorrozgoti 1,

94 612 93 85



drinks



txoko



music



maza

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Hermógenes Rojo, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarquetz)
Eguneko menua

MENFER INSURANCE GROUP



Menfer Insurance Group, Allianz enpresaren barnean dagoen agentzietako bat da.

2012an sortu zen hiru langilerekin eta gaur egun bizirik diardu, urte asko irau-teko itxaropenarekin. Aipatzekoa da bertako langileen hurbiltasuna bezeroekiko itzela dela.

Aseguru arloaren barne dauden aseguru mota gehienekin lan egiten dute, besteak beste: auto aseguruekin, etxeko aseguruekin, bizi aseguruekin, aurrezte eta inbertsio aseguruekin, dendetako eta enpresetako aseguruekin, eta abar.

Merkatuan dauden aurrezte eta inbertsio asaguru onenatarikoak eskaintzen dituzte. Bizi aseguru eta gainerako aseguruen prezioak ere "ezinhobeak" direla diote.

Menfer Insurance group.
Geltoki bidea, 1
Tlfnoa. 94 655 17 73



Ez tiro egin anbulantziei

Mikel Ayllon.
Elkar. 2015



Kartzelan azaldu da bat-batean Gerard, zergatik ez dakiela. Sartu duten mundu krudel hori ulertu ezinik emango ditu egunak, banaka desagertzen hasiko diren kidez inguratutik. Guztien arteko lokarria eta egoera ulertzeko giltza dirudi Sylviek, Gerardek arestian ezagututako emakume misterioitsuak. Eleberri ausart

bezain aberatsa gauzatu du Mikel Ayllonek Igartza sariaren laguntzaz. Iza eta desolazioa nagusi diren gizarte distopiko batean, elkartasunaren ametsari eta edertasunaren ilusioari eutsi nahi liekete pertsonaiek, nahi horrek nora ezean ibiltzera bultzatzen dituen arren. Atzekoz aurrera ordenaturik dago kontakizuna: kartzela eta heriotzatik abiatutik, haien aurreko maitasun istoriora eta borroka asmoetara. Horrela, amaierara iristen denean istorioaren hasieran egongo da irakurlea.



Denbora da poligrafo bakarra

Berri Txarrak
(Only in Dreams. 2014)



"Xake-mate kultural bat". Horrela defini daiteke Berri Txarrak taldeak iazko azaroan atera zuen diska hirukoitza. Plataforma digitalak puripuri-uraren dauden garai honetan formatu fisikoaren alde apustu egiteak sekulako arriskua izan

daiteke, baina 20 urte eman duen talde batentzat garai berri baten hasiera izan liteke. Eta horrela izan da behintzat 1994an Lekunberri aldean jaio zen taldearentzat. Hasierako taldekideetatik Gorka Urbizu abeslari eta kitarrajolea baino ez da gelditzen, baina orain bidaide dituen David Gonzalez (baxua) eta Galder Izagirrekin (bateria) lortu duen egonkortasuna nabarmena da.

Azken lanen antzera, Euskal Herritik kanpora jo du taldeak diska grabatu eta ekoizteko. Emaitza: hiru EP labor, haien artean desberdinak, soinu eta estiloan batez ere. Baina garrantzitsuena da hainbat urteren ostean bizirik dirauela taldearen esentziak. Eta hori ez da batere erraza.



Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarri. Eskerrik asko!

Zaindu dezagun maite dugun Zorrotza hori

Egunero zein noizean behin erosketak egin ditugunean badago zorrotzarron artean zabaldua samar dagoen ohitura bat: autoa hartu eta, A8tik abiatuta, guztiok ezagutzen ditugun megadendetan erostea. Iruditzen zait ez garela jabetzen ohitura horrek ekartzen dituen ondorio negatiboek, bestela ez genukeelako egingo.

Alde batetik, kutsadura sortzen dugu eta energia alferrik gastatu; bestetik, kontsumo itsua eta norberekeria sustatzen ditugu; azkenik, lanpostu prekarioak eta ezegonkorrak suspertzen ditugu. Are gehiago, gure erosketak eta kontsumoak Zorrotzatik kanpo egiten ditugunean, ziur aski konturatu gabe, hainbat auzotarren ekonomiari mesede makala egiten diogu. Baina ez hori bakarrik, jarduera horrek beste ondorio larri bat du: gure auzoari apurka-apurka bizia kentzen diogula.

Aldiz, ez gara konturatzen galtzen ditugun gauza on batzuez; esaterako, erosketak oinez egiteko erosotasuna, gure auzoko dendetako salgaien kalitatea edo saltzaileen gertutasuna eta aholku onak.

Ruper Ordorikak bere abesti ezagun batean gogoratzen digu zaintzeak garrantzia handia duela zerbait edo norbait maite dugunean. Izan ere, denok dakigu maitasuna gauza txiki-ekien hazten dela eta eguneroko jardueretatik elikatzen dela. Horregatik, Zorrotzako saltokietan erosten dugunean edo bertoko profesionalengana jotzen dugunean, gure auzoko ekonomiari hauspoa ematen diogu, auzokideen lanpostuak defendatzen ditugu eta, azken finean, itxaropena eta bizitza ematen diogu auzoari.

Bistan denez, beraz, erosketak non egin bezalako erabaki xume batek ondorioak izan ditzake: hurrengoan beharbada bi bider pen-tsaturko dugu, gure ibilgailua ez dugu mugituko eta auzoko denda eta profesionalengana joko dugu zerbitzu eske.

Horrela, gure auzoa irabazle aterako da eta berarekin batera gu guztiok ere bai. Beraz, Ruperrren hitzak gogoratu eta zaindu dezagun maite dugun Zorrotza hori.

Karlos Rodriguez

SALAKETA ARGAZKIA



Azkenengo bolada honetan auzoan hainbat margoketa faxista agertu dira. Normalean mezu arrazista, xenofobo eta islamaren kontrakoak izan dira, baina izan dira bestelakoak ere; adibidez, Josue Estebanez preso faxista askatzeko eskatzen dutenak -2007an Carlos Palomino 16 urteko gaztea hil zuen Estebanezek Madrileko metroan-. Mezu horiek denbora laburra eman dute kalean, herritarrek kendu edo ezabatu egin dituztelako. Hala ere, Zorrotz Morrotzeko erredakzio taldetik margoketa faxista horien agerpena salatu nahi dugu eta Zorrotza alai, antifaxista eta anitzaren aldeko apustu garbia adierazi nahi dugu.

Bizitzaren kontraesanak

Gizarte ulergaitz batean bizi gara, kontraesanez betetako munduan. Egunero berdintasun lurralde batean bizi garela saltzen zaigu, non emakumeek zein gizonezkoek eskubide berberak dituzten. Errealitatea oster, beste bat da. Tamalgarria da gure gizarte "inozo" honetan alarma gorria soilik tratatu txar kasuetan piztea. Oro har horrekin lotzen dugu genero indarkeria, indarkeria fisikoarekin. Baina are gehiago da, gure kulturaren integratuta dagoen mamua. Ikusezina da, ukitu ezina ere bai, baina gure egunerokoan oso presente dago.

Komunikabideetan ikusten dugu. Gizon dotore batek bere mezua igortzen digu jangura falta duen neskato titi handi bat alboan duen larrik. Hura pantailan hobeto emateko jarritako apaingarria da soilik. Publizitatean ere presente dago. Boterearen irudia gizonezko batek hartzen du. Emakumea gorputz puska bat baino ez da, sexu-objektu bat menderatzen erraza dena. Produktu bat saltzeko merkantzia merke bat. Egunero estimulu horiek gure gizartea kutsatzen dute. Berdintasuna eskatzen dutenak sorginak, erreboluzionarioak, feministak, dena aldatu nahi duten deabru-emeak dira. Beste batzuen kexak oster isilagoak dira, ezbeharrak gertatzen direnean soilik altxatzen diren ahotsak. Egun hauetan ordea, pantaila handiaren aurrean jartzeko deskantsua hartu dute. Han diraute, begiak estalita dituztela, isilpean, mozala ahoan dutelarik, ustaren soinuaren menpe.

Haizea Olleta

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Hizkuntza pentsamenduaren isla da, eta aipatzen ez dena ikusezintasunean geratzen da. Tamalez, hori da emakumeon presentziarekin hainbat hizkuntzatan gertatu zaiguna; ez aipatuak izan garela eta beraz, gure ekarpen eta esperientziak ezkutuan geratu direla. Atal berri honetan, **hizkuntzaren eta euskararen erabilera ez sexista zer den eta hau ekiditeko klabeak emango ditugu.**

Askotan entzun dugu nola euskara, hitzak generoagatik desberdintzen ez dituen hizkuntza izanda (hikan izan ezik, noski), ezin dela era sexista baten erabili. Esan beharreko lehenengo gauza, euskara bera edo edozein hizkuntza ere, berez ez direla sexistak, **erabileran egongo dela gakoa.** Hau da, sexista da emakume zein gizonezkoetaz mintzatzerakoan erabilpen desberdindua egitea (askotan gazteleraren erabilera-eragatik eraginda), honek kasu askotan daukan inplikazioarekin.

Adibidez, proba errez bat egin dezakegu: euskarazko edozein online hiztegi hartuta, kontu ezazue zenbatetan agertzen den "gizon" "mutil" eta "emakume" edo "neska" hitzak eta zein testuingurutan presentatzen diren esaldi adibideetan. Era kritiko batean begirata, seguru ondorio anitz atera ditzakegula...



independentzia!
SOZIALISMOA!

ASKABIDE
kultur elkarte
ZORROTZA

ITZULERA GOGOAN,
TAUPADEN ARRAZOA

Frai Juan 20 • Tel: 94 497 13 49
askabidezorrotza@gmail.com

Aisialdiko begirale ikastaroa geure auzoan bertan!



euren begiraleen pausoak jarraitzea erabaki dute.

Ibilbide luzea duenez taldeak (hiru hamarkada betetzear) bertatik pasa diren begirale boluntario guztiak zenbatzea lan zaila izango litzateke. Hala ere, denok zer edo zer badute edo izan zuten komunean: auzoaren eta bere hiritar gazteen aldeko lan desinteresatua egitea. Ez da baina lan erraza hori, horrexegatik Gure Lurra elkartetik bi urtean behin begiraleak prestatzeko ikastaroak antolatzen dituzte "Monitoriza-t" izenpean. Bertan, boluntario lan egiteko interesa duenak, aisialdiko begiralea izateko beharrezkoa den prestakuntza jasoko du.

Zorrotzako auzotarra bazara, Gure Lurra elkarteari buruzko zer edo zer inoiz entzun duzula ziur gaude. Udalekuak, txangoak, tailerrak... anitzak dira elkarteak antolatzen dituen jarduerak Zorrotzako ume eta gazteentzat. Baina horren guztiaren atzean, garrantzitsua bezain ezezaguna den lan boluntarioa dago. Gaur egun, Gure Lurra elkartean 20 gazte boluntario inguru lan egiten dute bere barne "muina" martxan jartzeko eta elkartetik antolatzen diren ekintza gehienak aurrera eramateko. Horietako askok, txikitatik parte hartu dute aisialdi zentroan eta urteak pasa ondoren

Ereduari jarraituz, esperientzia luzea duten elkarteko begiraleak dira ikastaroak antolatzen eta burutzen dituztenak borondatez. Hortaz, guztiz dohainik eskaintzen den ekintza da, elkarteari eta hezkuntza ez-formalari buruzko hainbat gauza ikasteko gogoia baino ez da eskatzen. Honenbestez, zure denbora librean besteak lagundu nahi badituzu, umeekin lan egitea gustatuko balitzaizu edota zu bezalako gazteekin talde-lanean aritzeko gogoia baduzu, Gure Lurra elkartearekin kontaktuan jarri zaitez informazio zabalagoa lortzeko. Aukera ezinhobea benetan lan polita egiteko!



ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estarta, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

Iragar zaitez



ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

zmorrotz@gmail.com



diseinua

Diseinu grafikoa &
irudi korporatiboa

Tel. 657 732 934
aitor@amcdiseinua.net

www.amcdiseinua.net

Udaberriko udalekuak prestatzen hasi dira

Gure Lurraren Aisialdi Zentroa osatzen duten begirale taldea, beste urteetan bezala, Aste Santuko Udalekuak prestatzen hasi da. Aurten aukeratutako lekua Poza de la Sal (Burgos) da, Felix Rodriguez de la Fuente dokumentalari famatuaren jaioterria. Bertan, Zorrotzako neska-mutilek inguru zoragarri honetaz disfrutatzeko aukera izango dute, jarduera eta ekintza mordoa egingo dituzte, euskarri hezitzaile eta ludiko batean oinarrituak.

Begiraleak hilabete hauetan lanpetuta ibili ohi dira beharrezkoak diren gauza guztiak antolatzen. Hala ere, gogo izugarriekin itxaroten dituzte udaleku egunak, haur eta gazteekin esperientzia polit hau berriz bizitzeko irrikaz.

Kalitatezko aisialdi ekintzak eskaintzeko egunero egiten dugun esfortzua aintzat hartzen duzelakoan, hainbeste urtetan erakutsitako konfiantza eskertzea soilik geratzen zaigu. Beste urte batez, ziur gaude, denontzat zoragarriak izango dira elkarrekin emagun ditugun egun hauek!



- BAIMEN GUZTIAK
- MATERIA ARRISKITSUEN IKASTAROAK
- GARRAIOLARIENTZAT TREBAKUNTZA-IKASTAROAK
- GIDARIEN GAITASUN AGIRIA (GGA)



Astillero, 2
Tfno. 94 499 25 91
Zorrotza - 4803 BILBO



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12



Begoña

Bai, alde nago, auzoa hobetzeko, jendearen eskaerak entzutearen alde nago.
Bai, baikorrak izan behar gara



Pedro

Bai, alde nago, baina ez dut uste aurten egingo dutenik. Luzerako dugula uste dut

Frontoia estalita?

Alde zaude?
Aurten estaliko dela uste duzu?

Iratze Pérez



Alaitz

Bai, beharrezkoa da. Neguan ekitaldiak egiteko ez daukagu lekurik. Pena da frontoia urte erdian hutsik izatea. Posible da. Hauteskundeak direnez, denek mugitzen dute ipurdia... Bestela auzoetan zaila dugu udalarengandik hobekuntzak lortzea




Jorge

Bai, alde nago. Neguan ere erabilgarria izango litzateke, ez bakarrik eguraldi ona dagoenean. Ez dut uste hain azkar erabakiko denik.



Jenni

Bai, ondo deritzot, han ekitaldiak egin ahal izateko. Nik uste dut baietz, aurten lortuko dela.



”la Caixa”

Zeu zara izarra

Abaro estarta, 5
48013 Zorrotza (Bilbo)
Tel. 94 459 00 90

www.lacaixa.es

19. ^{æk} korrika

UREPELETIK BILBORA
2015eko martxoaren 19tik 29ra

EUSKAHALDUN!

Ostirala, Martxoak 27

Goizean **Lip Dub grabaketa** Institutuan

19:30 **Bakarrizketa: Barry Manley** Madness tabernan

20:30 **Txinbatukada kalejira** Madness tabernatik

Larunbata, Martxoak 28

11:30 **Umeentzako tailerrak** Azoka parkean

13:30 **Dantza-poteoa** La Viña de Oro tabernatik hasita

15:00 **Herri bazkaria** (indabak)
apuntatzeko + informazio gehiago: euskaltegia

17:30 **Zorrotza Kantari - poteo berezia**
Dantzari tabernatik hasita

Igandea, Martxoak 29

8:30 **Korrika Zorrotzara helduko da!!**
Zorrotzabaso kaletik

Korrika joan eta gero **Txokolatada** Askabide Tabernan

Antolatzaileak:



Babeslea:




Laguntzaileak:



Zorrotzako XIX. ipuin lehiaketa 2015

Aurkezteko
azken eguna:
maiatzak 15

Non: Zorrotzako
Auzo Etxea,
Institutua eta
æk euskaltegia



SARIAK

12 URTETIK BEHERAKOAK

1. SARIA: Sopuerta abenturarako sarrerak
2. SARIA: Jolasa

DBH ETA BATXILERGOKO IKASLEAK

1. SARIA: 100 euroko kultur bonoa
2. SARIA: Jolas euskalduna

Antolatzaileak:



Babeslea:



Gaia:
librea

info +:
Zorrotzako æk
622 619 020



EUSKARAZ ERE, NATURALTASUNEZ

Harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzea funtsezkoa da zerbitzu ona eman ahal izateko. Euskadiko Kutxan, zurekin euskaraz aritzea ez da aparteko aukera bat, gure nortasunaren eta gure izaeraren berezko ondorioa baizik. Izan ere, geurea zaintzea gustatzen zaigu, geure ezaugarri bereizgarriei eustea eta iraunarazten laguntzea, etorkizuna bermatzeko. Izan ere bada euskara bizitzeko beste modu bat... naturaltasunez.



LABORAL
kutxa